

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abuztuaren 20a ▶ Larunbata

IRUTXULOKO HITZA LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA

 Gipuzkoako  
 Foru  
 Aidundia

 HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

 GAURKO  
 EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

16

 BIHARKO  
 EGURALDIA

goizez



arratsaldez

GAURKO  
ITSASALDIAK

↑ ordua: 5:49 - 18:02

metroak: 4,79 - 5,2

↓ ordua: 11:45 - 00:16

metroak: 0,92 - 0,61

943 30 43 46



Avenida-ko kideak eta Smoke Screem taldeko dantzariak. A. IARTZA



Koadrila hau primeran ibili zen dantzan jo eta su. A. IARTZA

## Mambo number 5

**DANTZALDIA** ▶ One, two, three, four, five...everybody mambo;  
 hori giroa, egunotan, Zuloaga plazako dantzaldietan!



Bikote batzuek trebezia ikusgarria erakutsi zuten Zuloaga plazako dantzaldian. A. IARTZA



### AITZIBER IARTZA / LIERNI EZEIZA

Zuloaga plazako dantzaldiak urteroko zita dira Aste Nagusian. Guk ere hango giroaz gozatu nahi izan dugu. Edadetuak dira nagusi dantzaldietan, baina gazteak ere badira. Dantzarako ez dago adinak.

Alboka, Tsunami eta Mom-pas taldeen ondoren, ostegunean Avenida donostiarrak aritu ziren Zuloagan. Adinak ez dago dantzarako eta musika estiloentzat ere ez. Maria Jose-ren *Pajaritos*, Rocio Durcalen *Me gustas mucho tu* eta pasodobleak entzun ziren, eta jendeak gogotik egin zuen dantza. Baina, zalantzarik gabe, beste musika estilo batzuk izan ziren arrakastatsuenak. Plaza pil-pilean jarri zen Chenoak ezagun bihurtutako *Cuando tu vas* kantarekin eta zer esanik ez Lou Begaren *Mambo number 5* entzun zenean. Denak dantzarara! Avenida orkestrako abeslaria ere ezin kabitu zebilen, jendea animatuz. Hori bai, gazte-hera hutsez aritu zen, eta eskertu egingo genuke euskaraz ere aritzea.

Kontzertuaren hasieratik, lehenengo ilaran izan zen Angelita donostiarra. Beste bi lagunekin aritu zen jo ta su dantzian. Angelitak esan zigunez, oso gustura ibiltzen da Zuloaga plazako dantzaldietan, dantzari amorratua baita. «Guraso musikariak nituen, eta bizitzaren zati garrantzitsua da musika. Sei alaba ditut eta haiek ere oso dantzazaleak dira, familiarik datorkigu grina». Angelita urtero joan ohi da Zuloagara. «Urtero etortzen naiz egunen batean Zuloagara. Gizona etxean uzten dut, berak ez duelako gustuko dantza egitea, eta lagunekin etortzen naiz». Zein ordutara arte ibili ziren Angelita eta lagunak dantzan? «Gorputzak irauten duen arte». Iraun dezala luzaro.

### AGURRAK ▶

## HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak,  
 jaioberriak...  
 zoriontzeko, etorri:

CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6)

FOTO MIKI (Matia kalea 3)

KATTAGORRI argazki denda (Larratxo pasealekua 26)

DAM arropa denda (Narrika 23)

EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9)

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!